

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

63/2023 Foru Agindua, otsailaren 17koa. Onestea nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatzeko eta egiteko laguntzen programarako 2023ko deialdia eta kreditu erreserba

Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 40/2021 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaien Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatu eta egiteko laguntza lerroaren oinarri arautzaileei.

Dekretu horren 5. artikuluan xedatzen da urtero onetsiko dela laguntza deialdia, zeinean eskaerak aurkezteko epea jasoko baita, bai eta deialdia ebazteko gordetzen den kreditua eta diruz lagun daitezkeen azokak egiteko aldia ere.

Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldirako gastuen aurrekontuan badago kreditua laguntza horien 2023rako deialdia onesteko.

Nahitaezko txostenak aztertu dira. Horien ondorioz, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatu eta egiteko laguntzen 2023ko deialdia, bat etorriaz nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatu eta egiteko laguntza lerroaren oinarri arautzaileetan ezarritakoarekin, zeinak Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 40/2021 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitziren. Hona hemen xehetasunak:

– Eskaerak aurkezteko tokia eta epea: foru agindua ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 20 egun balioduneko epean.

Eskaerak Nekazaritza Sailaren web orrian eskura egongo den inprimaki normalizatuan aurkeztu behar dira toki hauetan:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
- Vitoria-Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroetan.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozeinetan.

Edonola ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek egoitza elektronikoen berariazko izapidearen bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/pr-ayudas-para-la-organizacion-de-ferias-agricolas-y-ganaderas-1>), telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak; nortasun juridikorik gabeko erakundeak; elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako; administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak, eta administrazio publikoetako enplegatuek, enplegatu publiko izateagatik administrazio publikoekin egiten dituzten izapide eta jarduketetarako, administrazio bakoitzak erregelamendu bidez zehazten duen moduan.

Kreditu erreserba: adierazten diren zenbatekoak Arabako Foru Aldundiaren 2023ko aurrekontuko partida hauen kontura:

40.1.00. G/419400/462.90.400, Nekazaritza eta abeltzaintza azokak. Udalak. Toki erakundeak: 15.000,00 euro.

40.1.00. G/419400/481.00.421, Nekazaritza eta abeltzaintza azokak. Ekoizleen elkarteak: 10.000,00 euro.

Aurreko taldeetako bakoitzari dagozkion dirulaguntzak zehaztu eta gero, kreditua bi partiden artean banatu ahal izango da, baina deialdiaren kreditu orokorrean eragin gabe. Horretarako, dagozkion aurrekontu aldaketa egin beharko da.

Diruz lagun daitezkeen azokak egiteko aldia: 2022. urtean egindako azokek parte hartu ahal izango dute deialdi honetan (2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra), eta, beraz, eskaera eta agiri osagarriak benetan izandako inguruabarrei eta gastuei buruzkoak izan beharko dira. Laguntzak esleitu eta berehala egingo da ordainketa, eta ezinbesteko baldintza izango da oinarri arautzaileetan adierazitako agiri guztiak aurkeztu izana.

Bigarrena. Deialdi hau ebazteko, behar beste ebazpen emango dira, eta, ahal dela, bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko dira. Ebazpen hori eman aurretik, lehen adierazitako bi aurrekontu partidetakoz zenbatekoak birbanatu ahal izango dira, talde bakoitzari dagozkion laguntzen arabera.

Hirugarrena. Emandako laguntzak ordaintzeko, horien onuradun diren erakunde eskatzaileek, urriaren 9ko 52/2012 Foru Dekretuaren 11. artikuluan eskatutako dokumentazioaz gain, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, sailaren webgunean horretarako eskuragarri egongo den inprimaki normalizatuan. Adierazpen horretan adierazi beharko dute espedienteari telematikoki gehitzen zaizkion fitxategiak jatorrizkoen irudi fidela direla, jatorrizko fitxategiak erakunde eskatzailearen esku daudela eta, hala eskatzen zaionean, Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko dituela, sailaren webgunean eskuragarri egongo den inprimaki normalizatuaren bidez.

Laugarrena. Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2023rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa, edo horren kontrabalia atzerriko dirutan.

Ondasun ematea edo zerbitzu egitea zatikatu baldin bada, adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, batu egingo dira eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak.

Bostgarrena. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, haren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko organo horri, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorri Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 17a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria
MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE